

VIII

Osoko bilkura

Iruñean, Nafarroako Parlamentuan

2024ko irailaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Alberdi, Andres
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Casenave, Jon
Iñigo, Andres
Kintana, Xabier
Mujika, Alfontso
Oihartzabal, Beñat
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Suárez, Castillo
Videgain, Xarles
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea,
zegozkion gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Asun Garikano, Roberto González de Viñaspre diruzaina, Jose Irazu «B. Atxaga», Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Miren Agur Meabe, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Asun Garikanok ahala Miriam Urkiari; Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari eta, bera ez balego, Adolfo Arejitari; Joseba Lakarrak ahala Patxi Salaberriri; Miren Agur Meabek ahala Andres Urrutiari eta Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari. Batzarra Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, egin da, 2024ko irailaren 27an, ostiralean.

Bilkura hasi aurretik, Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko presidentek harrera egin die euskaltzainei. Bere hitzaldian, Hualdek eskatu dio Euskaltzaindiari euskararen sustapenean eta garapenean laguntzen jarrai dezala. Hala berean, Europako Kontseiluak euskararen errealitateari buruz egindako txostena ere aipatu du parlamentuburuak. Horiek horrela, hizkuntza-normalizazioaren aurka jotzen duten faktore nagusietako bi aipatu ditu: «Inplizituki, esan berri digute zonifikazioa euskara bultzatzeko eta berdintasunez erabiltzeko oztopoen artean dagoela [...]. Egia da denbora

asko daramagula egoera horri buruz ohartarazten, eta egia da, gero eta gehiago izan arren, ez dugula gehiengo nahikorik Nafarroan Euskararen Legea aldatzeko. Horregatik, hizkuntzan eta hiztunengan pentsatuz, ezin dugu gutxietsi aurrerapauso bakoitza, txikia izan arren. Itun bat beharko litzateke, eta ia proposatu nuen foro honetan bertan. Inteligentziaz lan egiten jarraitu behar dugu».

U. Uhalderen mintzaldi laburraren ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu du eta eskerrak eman dizkio Nafarroako Parlamentuko buruari, osoko bilkura egin ahal izateko emandako erraztasunengatik. Segidan, ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, 2024ko iraileko osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu.

1. Ageriko bilkuraren (2024-06-29) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Ohar idatzirik ez da jaso. Ahoz iruzkinik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko ekainaren 29ko ageriko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Osoko bilkuraren (2024-0-29) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

A. Alberdik 8.8 puntuaren azken pasarte iruzkindu eta proposatu du paragrafoa honela amaitzea: «sinboloei buruzko 197. arauarekin bat etortzeko». Eginiko oharra onetsi da.

Ahoz iruzkinik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko uztailaren 19ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak.

Batzorde Ahaldunduaren oharra (LV). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak aurkeztu ditu uztailleko bilkuran azaldutako zerrendari A. Garikanok egindako oharra, bai eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak ere. Zuzena da egitasmoko kideek jasotako adibidea, baina testuinguru zabalagoa gehitzeko eskatu du M. Azkaratek, bestela nahasgarri izan daiteke eta. Hala onartu da.

Beste oharrik ez da egin eta, beraz, zerrenda osoa onartuta geratu da.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (LVI). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok eta M. Azkaratek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, urriaren 14a (astelehena) artekoa.

5. Onomastika Batzordea: Bizkaiko herri izendegia eguneratzeko proposamena aurkeztu

P. Rekalde Onomastika Batzordeko kideak, R. González de Viñaspre Batzordeko buruak hala eskatuta, Bizkaiko herri izendegia eguneratzeko proposamena (145. araua) aurkeztu du. Laburbilduz, honako hau da eguneratu nahi dena:

a) Arrankudiaga > Arrankudiaga-Zollo. 1968an, Zolloko Udala Arrankudiagako Udalean sartu zen. Urte batzuk geroago, 2022an, Arrankudiagako Udalak erabaki zuen *Zollo* izena gehitzea udalaren izenean, hots, *Arrankudiaga-Zollo* izatea. *Zollori* dagokion herritar izena erabaki gabe zegoenez, proposatu da *zolloar* eta *zollotar* izatea; herritar-izen bakarra eman beharrez gero, Batzordeak ez du argi zein hautatu.

b) Usansolo. Usansolo Galdakaoko auzoa izan da berriki arte, hain zuzen ere, Bizkaiko Batzar Nagusiek 2022an udalerrri izatea ontzat eman zuenean; Espainiako Administrazioak ontzat eman zuen izendapen hori 2023ko abenduan.

Herritar-izenari dagokionez, proposatu da *usansoloar* eta *usansolotar* izatea; herritar-izen bakarra eman beharrez gero, Batzordeak ez du argi zein hautatu.

c) Izen ofizialen aldagetak: *Sopelana* > *Sopela*; *Urduña-Orduña* > *Urduña* / *Orduña*. Bizkaiko bi herri horien izen ofizialak aldatu dira. Batetik, *Sopelana* izatetik *Sopela* izatera igaro da, eta, bestetik, *Urduña-Orduña* izatetik *Urduña* / *Orduña*.

d) Errata bat zuzentzea. 145. arauan esaten da Munitibar udalerrriaren izen ofiziala, 1989an onartua, *Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz* dela. Izen hori

okerra da (*Arbaitze*gi-ren eta *Gerrikaitze*n arteko marratxoa ez da zuzena). Izen zuzena, aldiz, *Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz* da.

e) *Garai* herri-izenaren oin-oharra kentzea. 145. arauan, *Garai* toponimoak oin-ohar hau du: «Ahoz gorde den artikuludun aldaera erabiltzea zilegi da. Horrela nahi izanez gero, erabil bedi: *Garaia*, *Garaian*, *Garaitik*, *Garaira*, *Garaiko...*». Batzordeak egiaztatu du absolutiboan ez dagoela artikulurik (*Garaia* ez da lekukotzen) eta inesiboan baino ez dela gertatzen fenomeno hori bertako erabileran. Ahozko erabileran (*Garaixen*) ez dagokio idatzizko forma estandarrari. Horregatik, ohar hori ezabatzea proposatu du.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, urriaren 14a (astelehena) artekoa.

6. EBO: Ortografia-markak (I) txostena. Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

EBE Batzordeko A. Mujikak adierazi duenez, Ortografia-markak (I) txostenari M. Azkaratek eta A. Garikanok egin dizkiote oharrak. M. Azkarateren oharretako batzuk testuko oharrak konpontzeko oharrazpenak direnez, ez dira eztabaidatu, zuzenean onartu eta okerrak konpondu dira. Bestelako oharrei dagokienez, erabaki hauek hartu dira:

- Data zenbakiz adierazteko moldean (txosteneko 2.1.6 puntua), zenbakien artean marratxoa jartzeaz gainera, barra etzana ere jartzea ontzat ematen da, eta ohargileak galdetu du ea puntua ere onartzekoa den. Batzordeak erantzun du, nazioarteko joerak eta datuak emateaz gainera, zenbakizko adierazpenen txostenean datari buruzko atal bat dagoela eta han eztabaidatuko dela puntua ere ontzat ematea komeni den. Orduan zer erabakitzen den, txosten honetan dagokiona jarri beharko da: onartuz gero, txosten honetan ere aipatu beharko da, eta, onartu ezean, dagoen bezala utzi beharko da.

- Txosteneko 2.1.7 puntuan, EAJ-PNV siglak dituen adibidea kentzea hobetsi da.

- Txosteneko 24. oin-oharra (Osoko Bilkurarentzako oharra): *asterisko* hitza Euskaltzaindiaren Hiztegiko Lantaldeak aztertuko du, eta, hiztegian sartzea ontzat ematen bada, txostenean ere erabiliko da. Beraz, erabakiaren zain utzi da.

- Txosteneko 2.9 puntuan, adibide bat zuzenduko da, nahiz eta benetako adibidea izan, Euskaltzaindiaren hobespenekin bat etorrazteko. Honela utziko da (*nagusi* hitza genitiboan jarrita): «... aditz **nagusiaren** eta laguntzailearen artean».

- Txosteneko 3. atalean, *latindar alfabeto* terminoa erabili da behin baino gehiagotan, eta *Euskaltzaindiaren Hiztegian* LATINDAR sarrerak ez du adiera hori. Euskaltzaindiaren Hiztegiko Lantaldeak aztertuko du, eta erabakitzen dena aplikatuko da txosten guztietan, bai eta lehendik arauetan dauden *latindar alfabeto*, *alfabeto latindar* edo *alfabeto latino* ere. Beraz, erabakiaren zain utzi da.

A. Garikanok ohar ugari egin dizkio testuari, eta ohar gehienak estiloari dagozkio: erredakzioa eta testuaren irakurgarritasuna hobetzeko proposamen egokiak dira edo erratak konpontzeko oharrak. Batzordeak zuzenean ontzat eman ditu era horretako oharrak, eta ez da beharrezkoa izan bilkuran eztabaidatzea, ez baitagozkio txostenaren edukiari. Mamiari dagozkionak bakarrik aurkeztu eta ebatzi dira. Honako hauek dira:

- Txosteneko 2.2.2.2.2 puntuan, «Kasu batzuetan, marratxoa bereizlea da» esaldiaren ordeztu, azalpen hau onartu da: «Kasu batzuetan, marratxoa lagungarri da anbiguotasuna ezabatzeko, garbi uzten baitu egitura izen-elkarte bat dela eta ez izen bat eta adjektibo bat. Adibidez, [...]».

- Txosteneko 2.1.2.2.7 puntuan, paragrafo hau dator: «Gutxienez hiru hitzez osatutako elkarte bereziak dira, non ezkerraldeko izenen artean modu sintetikoan adierazten baita beste egitura konplexuago batez adieraziko litzatekeen erlazioa. Adibidez, [...]». Horren ordeztu, paragrafo hau onetsi da: «Gutxienez hiru hitzez osatutako elkarte bereziak dira. Azken osagaia, eskuineko izena, hitz-elkartearen burua da, eta ezkerreko osagaien bidez eskuineko izenari buruzko informazio bat ematen da modu trinkoan; hau da, bestela izenlagun konplexu baten bidez edo perpaus erlatibo baten bidez adieraziko litzatekeena laburtzeko balio dute. Adibidez [...]».

- Txosteneko 3.1 puntuan, *Euskaltzaindiaren Hiztegiko* sarrera kopiatu da, eta, adibide batean, *ikur diakritikoez* dioen tokian badirudi mugagabea behar litzatekeela: *ikur diakritikoz*. Euskaltzaindiaren Hiztegiko Lantaldeak aztertuko du, eta erabakitzen dena aplikatuko da txostenean. Beraz, erabakiaren zain utzi da.

- Txosteneko 3.5.5 puntuan, hauxe esaten da: «Horregatik, malgu jokatu ohi da gure inguruan ezezagun gertatzen diren diakritikoekin, edo, ezagunak izanik ere, ohiz kanpoko posizioan agertzen direnekin. Zehazki, latindar alfabeto hedatua erabiltzen duten hizkuntzen kasuan gertatzen da». Horren ordeaz, beste hau jartzea onartu da: «Horregatik, malgu jokatu ohi da gure inguruan ezezagun gertatzen diren diakritikoekin, edo, ezagunak izanik ere, ohiz kanpoko posizioan agertzen direnekin. Zehazki, latindar alfabeto hedatua erabiltzen duten hizkuntzen kasuan jokatu ohi da malgu».

Horrenbestez, onartu da txostena eta Euskaltzaindiaren Hiztegiko Lantaldeak erabakitzen duena zuzenean aplikatuko da *asterisko*, *latindar* eta *diakritiko* hitzei dagokienez.

7. EBO: Ortografia-markak (II) txostena. Aurkeztu

EBOko ortografia-marken multzoko bigarren txostena aurkeztu du EBE Batzordeko A. Mujikak. Ortografia-marken atala aski handia da, eta hiru partetan landu da. Horiek horrela, bigarren partean, puntuazio-marka hauek landu dira: puntua, etenpuntuak, parentesiak, parentesi karratuak, marra, komatxoak, eta galdera- eta harridura-markak (hirugarren txostenean, koma, puntu eta koma eta bi puntuak landuko dira).

Puntuazio-marka bakoitzaren deskribapen tipografikoa egin da, eta bakoitzaren funtzioak xeheki deskribatu. Puntuazio-marka bakoitza beste puntuazio-marka baten ondoan gertatzen denean nola jokatu behar den ere zehaztu da, bai eta marka bakoitzaren puntuazioaz haraindiko funtzioak xehatu ere.

Bizpahiru puntu bereziki korapilatsutan nola jokatu galdetu dio EBE Batzordeak Osoko Bilkurari, datuak eta azalpenak emanda (txostenak bi eranskin ditu, datu osagarriak emateko). Horretaz gain, marra eta parentesien barnekoaren eta kanpokoaren arteko komuntadurari buruzko galdera bat ere mahairatu du, gaia ortotipografiari ez dagokiolako.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, abenduaren 9a (astelehena) artekoa.

8. Esku artekoak

8.1 Patxi Oroz ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. Beriainen (Nafarroa) jaio zen Francisco Javier Oroz, 1934ko abenduaren 2an. Filologia Erromanikoko doktorea (Münsterko Unibertsitatea), Tübingengo Unibertsitateko irakasle emeritua, ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak 2004ko azaroaren 26an. Organista aritu zen Erroman eta Münsterko Saint Michael elizan. Tübingengo Romania Cantat abesbatzako zuzendaria ere izan zen. Musikagile gisa hainbat lan ondu zituen: *Nire aitaren etxea*, *Gernika ostadarra*, *Canon pro pace* eta *Vasconia cantat* bildumak, esaterako. 1960tik aurrera, filologo-lanetan aritu zen. Bitxikeria bezala, aipatu behar da Gabriel Arestiren *Nire aitaren etxea defendituko dut* poemaren ehunka itzulpen bildu zituela Orozek. Bere hileta urriaren 7an izango da Tübingen herrian.

8.2. Gaur banatuko diren argitalpenak

a) *Toponimia de Vitoria IX / Gasteizko Toponimia IX. Dibiña II. Onomasticon Vasconiae* 35. Elena Martínez de Madina. Gasteizko Toponimia egitasmoaren zuzendari akademikoa: Roberto González de Viñaspre.

b) *Euskaltzaindia eta Nafarroa / Euskaltzaindia y Navarra*. Paratzaileak: S. Aleman, A. Iñigo eta P. Rekalde.

c) *Euskaltzaindia eta Araba / Euskaltzaindia y Álava*. Paratzailea: Roberto González de Viñaspre.

d) *Iraileko Paperak*. Askoren artean. Iraileko egitasmoarekin batera ontzen eta banatzen dena.

8.3 Hurrengo bilkurak

a) *Irailekoak* egitasmoa dela eta, asteburu honetarako zehaztu den egitaraua aurkeztu du I. Borda euskaltzainak. Euskaltzainei gonbita luzatu zaie hurrera daitezen.

b) Hurrengo osoko bilkura Donostian, urriaren 25ean, ostiralean, egingo da, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 10:00etan.

8.4 Bazkariak direla eta, irizpideak eguneratu dira. Zuzendaritzak aurreko osoko bilkuran hartutako konpromisoari erantzunez, irizpideak eguneratu dira. Argibideak A. Urrutia euskaltzainburuak eman ditu.

9. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:00ak direnean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria